

POESÍA VASCONGADA

¿MAITASUNA EDO?...

Arbol batian zeuzkan
 karnabak kabiyan,
 iru ume politak
 erdi ageriyen;
 zoratu nayan bizi
 zan iru ayekiñ,
 bere errayetako
 puška maitiakiñ,
 euli, ta pišti onak
 zituben achitzen,
 eta umechoari
 aguro ekartzen;
 gošatutzen zituben
 umeak aiñ pozez,
 etzan iñola ere
 azperten maitatzez;
 beiñ irten zan kabitik
 oso pozez egan,
 laister jiratutzeko
 asmotuz beregan,
 bañan jira kabira
 zubeneko eman,
 mutill batek kabiya
 eskuan zeraman;

ama gaišuan pena,
 zoratu nayian
 zebillen, mutill arren
 buruan gañian;
 kulpa gabeko ayek
 ala ikusirik,
 eta berak iñola
 eziñ lagundurik,
 mutill ark kayolian
 umeak sarturik,
 kayola jarri zuben
 leyotik chinchilik.
 Ama laisterkatzen zan
 umechoen gana,
 eramatera pozez
 gaišoari jana,
 etziyen eramaten
 nai aña janari,
 gajuak nayagatik
 bere umeari;
 irtengo etziranik
 etzuben etzitzen,
 argatik lagundutzen
 etziyen utzitzen.

bañan ezaguturik
aunditu zirala
eta presondegiya
betiko zutela;
perejillen ašiya
bai ziyen eraman,
zezaten an irurak
bertelašen jan.
Kot̄arubak segiran

jan zuten ašiya
eta zuten chit galdu
irurak ibiziya
.
Amak nai ezik bera
ta ayek penatu,
bertan zituben gaišo
ayek menenatu.

PEPE ARTOLA.

